

**2005EKO IRAILAREN 29AN UDALBATZA OSOAK EGINDAKO OHIKO
BATZARRALDIAREN AKTA.**

LEKUA: Beasaingo Udaletxea.

ARETOA: Batzar Aretoa.

EGUNA: Hogeita bederatzia

HILABETEA: Iraila

URTEA: Bi mila eta bosta.

HASIERAKO ORDUA: Arratsaldeko zazpiak.

BATZARRALDIAREN IZAERA: Ohikoa

DEIALDIA: Lehena.

OSATZEN DUTEN PARTAIDEEN KOPURUA: Hamazazpi (17)

LEHENDAKARIA: Patxi Plazaola Muguruza

BILDUAK: Pello Garaialde Goikoetxea
Arantza Aseginolaza Azkargorta
Imanol Aranburu Gutierrez
Jon Olano Arrese
Malu Valles Fernandez
Joan Martin Aldaregia Etxebarria
Jose Antonio Ibaibariaga Usabiaga
Ana Asla Egialde
Jon Kortaberria Lasa
Maria Pilar Vispo Chamosa
Julio Herreros Serna
Gonzalo Zaldo eta Arana
Iñaki Saldaña Herrero

ETORRI GABEAK: Aitor Aldasoro Iturbe
Alfonso Segade Gonzalez
Jose Antonio Sanchez Gutierrez

IDAZKARIA: Itziar Arostegi Apaolaza

Bilkuran, Lurdes Alegria Lasa Kontuhartzaileak ere parte hartu du.

1.- AURREKO AKTA. 2005eko uztailaren 28ko akta onartzeko proposamena.

2005eko uztailaren 28ko akta ezagutzera eman ondoren, berarekiko iritzi hauek azaldu dira:

Iñaki Saldaña jaunak (EB): “no puedo aprobar este acta porque en el último punto mi grupo presentó una propuesta sobre los acontecimientos que acontecieron hace sesenta y nueve años, y si bien en el acta se hace una referencia escasa, no hubo intención alguna de someterlo a debate y votación ni en ese ni en otro pleno. Fue una cuestión que quedó en el aire. Yo esperaba una respuesta, pero como no la hay, no puedo aceptar el acta.”

Julio Herreros jaunak (PP): “No aceptamos el acta porque en los plenos participa la plataforma ilegalizada y luego no se refleja en el acta.”

Beste guztiek aktarekiko aldeko iritzia azaldu dute.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 11 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE)

Aurkako botoak: 3 (PP; EB)

Abstentzioak: 0

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da 2005eko irailaren 29ko akta.

2.- ARAU SUBSIDIARIOAK. Udal Planeamenduko Arau Subsidiarioen berrikuntza-dokumentuaren irizpideak eta irtenbideak onartzeko proposamena.

Alkateak gai honi buruz, hirigintza-batzordeko proposamenaren berri eman du:

“Gaia: Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen berrikuntza- eta egokitze-dokumentuaren irizpide eta helburuak onartzeko proposamena.

AURREKARIAK

1.- 2005eko martxoaren 24an eta 29an eta apirilaren 8an, Berrian, Diario Vascon eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean hurrenez hurren, Beasaingo

Planeamenduko Arau Subsidiarioen berrikuntza- eta egokitze-dokumentuaren Aurrerakina jendaurrean, bi hilabeteko apean, jartzeari buruzko iragarkiak argitaratu ziren. Ondoren, 2005eko apirilaren 12, 13 eta 18ko datekin, Berrian, Diario Vascon eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, akats-zuzenketak argitaratu ziren, Aurrerakinarekin batera, Ingurumen-inpaktuaren Osotasunezko Balorazioaren Azterlana ere jendaurrean jarrita zegoela adieraziz.

2.- 2005eko apirilaren 7an eta otsailaren 27ko 3/1998, Euskal Herriko Ingurumena babesteko Lege Orokorraren 46. artikulua arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiko Garapen Eramangarrirako Sailera bidali zen, Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioak berrikusteko eta egokitzeko Aurrerakina, ingurumen-inpaktuaren osotasunezko balorazioaren azterlanarekin batera eta 2005eko abuztuaren 5eko datarekin jaso zen Eusko Jaurlaritzako Lurralde Antolamendu eta Ingurumen Saileko txostena, planeamenduko behin betiko dokumentuan kontuan izan behar diren arloen berri emanez.

3.- 2005eko ekainaren 9ko datarekin, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Zuzendaritza Nagusiko Ondare Historiko-Artistiko, Artxibo eta Museotako Zerbitzuak emandako txostena ere jaso zen.

4.- Aurrerakina eta Ingurumen-inpaktuaren Osotasunezko Balorazioaren Azterlana jendaurrean egondako apean, ondorengoek sinatutako 29 alegazio eta iradokizun aurkeztu ziren:

Etxeberrikoa Eraikuntzak, SM-k, Joakin Dorronsoro Murgiondok, Izareder, SM-k, M^a Teresa Zaldua Mendizabalek, Joan Garin Aldasorok, Ignazio Gorrotxategik, Dorabel Diez Mosquerak, Pedro Risueño Morenok, Encarnacion Marques Martinek, Olano Imaz familiak, Josefa Gaztañaga Iparragirrek eta Jose Telleria Irastortzak, Inver C.G.I., SAK, Javier Garate Iturbek (KUTXA), Viktor Gorria Arotzenak, Fernando Carazo Amundarainek, Jesus M^a Dorronsoro Odriozolak (2), Juan Jose Lasa Garmendiak, Urbialde Iru, SM-k (3), Filomena Gonzalez Villalba eta beste batzuek, Juan Antonio Genicio Garridok, Karmelo Olano Seguroiak, Joan Manuel Garmendia Arandiak, Hilario Erauskin Iztuetak, Andres Arizkorreta Garciak, Ezekiel Etxezabalek eta Pilar Arratibelek.

5.- 2005eko uztailean, Arau Subsidiarioen berrikuntza- eta egokitze-dokumentuaren idazle-taldeak, honekin batera doan txostena egin du, aurkeztutako alegazio eta iradokizunei buruz.

6.- 2005eko irailaren 26ko datarekin Udal Idazkariak txostena egin du, aipatutako dokumentua onartzeko behar den legeria aplikagarria adieraziz eta jarraitu beharreko izapidetzearen eta eskuduntza duen organoaren berri emanez.

Horren ondorioz, Planeamenduko Araudiaren 125,3 artikuluan xedatutakoaren arabera, Osoko Bilkurari ondorengo erabaki-proposamena egiten zaio:

Lehenik. Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen berrikuntza eta egokitze dokumentuaren Aurrerakinari aurkeztutako alegazioak eta iradokizunak, 2005eko uztailleko txosten teknikoaren arabera, ebaztea.

Bigarren. Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen berrikuntza- eta egokitze-dokumentua lantzeko behar diren irizpide eta irtenbideak onartzea, aipatutako txosten teknikoan aurreikusitakoaren arabera.

Hirugarren. Erabaki honen berri idazle-taldeari ematea, hasierako onespenerako dokumentua presta dezan.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Iñaki Saldaña jaunak (EB): “queremos tener una referencia clara del porcentaje de viviendas de VPO y de las tasadas.”

Alkateak esan du zentzu horretan bi iradokizun daudela eta Toledo taldeari erantzuna zuzentzeko esan zitzaiola, baina agian txostenean oraindik ere gaizki azaltzen dela. Xehetasun hau txostenarekin egiaztatu ondoren, adierazten da, bederatzigarren iradokizunari, hamahirugarren iradokizunari ematen zaion erantzun berdina eman behar zaiola.

Hori horrela izanik, EBko ordezkariak proposamenarekiko adostasuna azaldu du.

Beste guztiek ere proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez eta bide batez, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

3.- 26. HA. 26. HArekiko Arau Subsidiarioen aldaketari buruz Diputatu Kontseiluak emandako behin betiko onespenerabakiaren arabera egindako dokumentua onartzeko proposamena.

Alkateak, gai honi buruz, hirigintza-batzordeko proposamenaren berri eman du:

“GAIA: 2005eko uztailaren 26ko Diputatu Kontseiluak 26. HArri buruzko Arau Subsidiarioen aldaketaren behin betiko onespenerabakia betetzeari buruzko dokumentazioa.

AURREKARIAK

26. HArekiko Arau Subsidiarioen aldaketa. Udalak alde zuzenetik izapidetu ondoren, 2005eko uztailaren 26ko Diputatu Kontseiluak behin betiko onespena eman zion aipatutako dokumentuari, 26. HAKo eremutik, trenbide-sare berriaren erreserba-zerrendaren barruan dauden lursailak kentzeko baldintzarekin.

Halaber, erabaki horretan adierazten da, akats eta kontraesan batzuk badaudela, Plana osatzen duten dokumentuen artean, hala nola:

- Eremu horretan dagoen hotelak interes publikoko kalifikazioa eta ekipamendu gisako erabilera izateak zalantzak sortzen ditu.
- Hotelaren eta Izarraitz Taldearen pabilioiaren lurzatieta antolaketa orokorreko eta eremukatze xehetuko planoen artean dauden kontraesanak zuzendu egin behar dira.
- Sestra azpiko aprobetxamendua zehaztu egin behar da aurkeztutako sekzio-tipoaren arabera eta baita 4. jardun-unitateko sarbidea ere.
- 3. eta 4. unitateetako eraikinetan baimendutako gehieneko altueran dagoen kontraesana ere zuzendu behar da.
- 2. jardun-unitateko eta 3. bideen sistema orokorreko azalerei buruzko datua ere zuzendu egin behar da.

Akats horiek denak zuzendu egin behar direnez, zerbitzu teknikoek dokumentu berri bat egin dute, hotelaren kalifikazioa aldatuz, dauden kontraesanak 26. HAKo eremutik, trenbide-sare berriaren erreserba-zerrendaren barruan dauden lursailak kenduz.

Horren ondorioz, Hirigintza-batzordeak, Osoko Bilkurari ondorengo erabaki-proposamena egiten dio:

Lehenik. 2005eko uztailaren 26ko Diputatu Kontseiluak 26 HARI buruzko Arau Subsidiarioen aldaketaren behin betiko onspen-erabakia betetzearren idatzi den dokumentua onartzea.

Bigarren. Aipatutako dokumentua behar den moduan eginbidetuta Gipuzkoako Foru Aldundira igortzea argitaratu eta indarrean sartu dadin.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez, beraz, gehiengo absolutuarekin, onartu da proposamena.

4.- 1. HA. 1. HAKo Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketaren aldaketari behin-behineko onspena emateko proposamena.

Alkateak, gai honi buruz, hirigintza-batzordeko proposamenaren berri eman du:

“Gaia: 1. HAKo Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketaren aldaketari behin-behineko onespena ematea.

Udalbatza Osoak 2005eko ekainaren 23ko datarekin, 1. HAKo Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketaren aldaketari hasierako onespena eman zion eta espedientea informazio publikoan jarri zen **Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean**, “**Diario Vascon**” eta “**Berrian**” iragarkiak argitaratuta eta hilabeteko epea alegazioak aurkezteko emanda. Epe horretan ez da alegaziorik aurkeztu.

Horren ondorioz, hirigintza-batzordeak Udalbatzari ondorengo proposamena egiten dio.

Lehenik. 1. HAKo Beasaingo Planeamenduko Arau Subsidiarioen aldaketaren aldaketari behin-behineko onespena ematea.

Bigarren. Gipuzkoako Foru Aldundiari igortzea, hala badagokio behin betiko onespena eman dezan.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Horren ondorioz, aho batez, beraz, gehiengo absolutuarekin, onartu da proposamena.

5.- 7. S. Beasaingo Plangintzarako Arau Subsidiarioen 18. Hirigintza Areako eta 7. Sektoreko elementu-aldaketen Testu bateratua lantzeko behar diren irizpideak eta irtenbideak eta hasierako onespena emateko proposamena.

Alkateak, gai honi buruz, hirigintza-batzordeko proposamenen berri eman ditu:

“AURREKARIAK

Planeamenduko Erregelamenduaren 125. artikulua diona betez, 30 eguneko epearen barruan argitaratu zen, Beasaingo Plangintzarako Arau Subsidiarioen 18. Hirigintza Areako eta 7. Sektoreko elementu-aldaketen Testu Bateratuaren Aurrerakina, 2005eko ekainaren 23ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, 2005eko ekainaren 10eko Berrian (akats-zuzenketa 05-06-14an) eta 2005eko ekainaren 11ko Diario Vascon (akats-zuzenketa 05-06-14an) iragarkiak argitaratuz.

Legez ezarritako epean ez da inolako alegaziorik aurkeztu.

Horren ondorioz, Planeamenduko Erregelamenduaren 125,3 artikulua xedatutakoa betez, Udaltzari gehiengo absolutuarekin onartu beharreko (ELOLEren 47,3 i artikulua), ondorengo proposamena egiten zaio:

Lehenik. Beasaingo Plangintzarako Arau Subsidiarioen 18. Hirigintza Areako eta 7. Sektoreko elementu-aldaketen Testu Bateratua lantzeko behar diren irizpideak eta irtenbideak onartzea.

Bigarren. Erabaki honen berri idazle-taldeari ematea, hasierako onespenerako dokumentua presta dezan.”

“Gaia: Beasaingo Plangintzarako Arau Subsidiarioen 18. Hirigintza Areako eta 7. Sektoreko elementu-aldaketen Testu Bateratuari buruzko hasierako onespena.

AURREKARIAK

Udaltzari Beasaingo Plangintzarako Arau Subsidiarioen 18. Hirigintza Areako eta 7. Sektoreko elementu-aldaketen Testu Bateratua lantzeko irizpideak eta irtenbideak onartzeko proposamena egin zaio eta-n egindako bileran onartu dira.

Horren ondorioz eta Planeamenduko Erregelamenduaren 125. eta ondorengo artikuluek diotenaren arabera, Udaltzari ondorengo akordio-proposamena egiten zaio:

Lehenik. Beasaingo Plangintzarako Arau Subsidiarioen 18. Hirigintza Areako eta 7. Sektoreko elementu-aldaketen Testu Bateratuari hasierako onespena ematea, dokumentuak onartutako irizpideak eta irtenbideak jasotzen dituelako.

Bigarren. Espedientea jendaurrean jartzea hilabeteko epean, iragarkia GAOn Berrian eta Diario Vascon argitaratuz, interesatuek alegazioak aurkeztu ahal izateko.”

Alkateak azaldu du, aldaketa hau egiteko arrazoia bere garaian Diputatu Kontseiluak 7. Sektoreko lursailari zatiezin baldintza jarri ziolako dela. Nahiz eta eremu horretan INDAR enpresa kokatuta egon, baldintza horrekin lursailaren eskualdaketarik egiteko aukerarik ez dagoela, ezta INDAR enpresa multzoaren barruko sozietate bati ere. Arau Subsidiarioen aldaketa honekin lursaila zatitzeko aukera ematen da.

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek proposamenarekiko ondorengo iritzia azaldu dituzte:

Iñaki Saldaña jauna puntu honetan abstenitu egingo da.

Bozketa eginda, ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV-EA; PSE-EE/PSOE; PP)
Aurkako botoak: 0
Abstentzioak: 1 (EB)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu egin da proposamena.

6.- ORDENANTZA FISKALAK. 2006. urterako tarifa berriei hasierako onespena emateko proposamena.

Alkateak Hazienda-batzordeko proposamenaren berri eman du:

“Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan xedatutakoa betez, Osoko Bilkurari ondorengo proposamena egiten zaio:

Lehenik. Ondorengo zergak erregulatzen dituzten ordenantza fiskalen eranskinen aldaketa:

- Ondasun Higiezinaren gaineko zerga.
- Trakzio Mekanikozko ibilgailuen gaineko zerga.
- Udalerriko jarduera ekonomikoen gaineko zerga.
- Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga.
- Lursailen balio-gehikuntzaren gaineko zerga.
- Zerbitzu publikoak eskaini edo jarduera administratiboak burutzeagatik tasa.
- Jabari Publikoaren erabilera pribatu edo aprobetxamendu bereziagatik tasa.

Bigarren. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaletxeko Ediktu Taulan eta Berrian eta El Diario Vasco egunkariaren bitartez iragarkia argitaratuta agertzen den azken egunetik aurrera kontatuta, espedientea jendaurrean 30 laneguneguz egongo da ikusgai, erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

Hirugarren. Inolako erreklamaziorik aurkeztuko ez balitz aipatutako epea iragan ondoren, erabakia behin betirako onartutzat hartuko da, eta beraz, eranskinean testu osoak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira eta akordioak 2006. urteko urtarrilaren 1etik aurrera sortuko ditu ondorioak.”

Alkateak adierazi du, Udal Euskaltegiko eta Musika Eskolako tarifak lehen onartu zirela, ikasturterako direlako. Urari dagozkion tarifak berriz, Gipuzkoako Urak, SAren batzordean onartuko dira. Kontsumo Prezioen

Adierazlea, abuztura bitarteko Autonomia Erkidegokoa aplikatu da, hain zuzen ere, % 3,2.”

Ondoren Alkateak, Jon Olano Hazienda-batzordeburuari hitza eman eta hark ondorengo azaldu du: “orokorrean proposatzen den igoera KPAREna da. Salbuespenak ondorengoak dira: zaborrak, etxe babestuak eta etxez etxeko laguntza. Ondasun Higiezinaren gaineko zergan ez dago igoerarik. Familia ugarien kasuan hobaria izateko, ondasun higiezinaren balio katastralak gehienara ere 160.000 €-koa izan behar du.”

Pello Garaialde jaunak (EAJ/PNV-EA): “Respecto al servicio de recogida y eliminación de basuras, decir que cada vez hay más reciclaje, ropa, aceite, pilas y compostaje que también se amplía al de carácter doméstico. En la Junta Rectora de la Mancomunidad se dió a conocer que para cuatro años se prevé un incremento del 22%, y lo que se propone es para cada año una subida lineal del 6%.”

Imanol Aranburu jaunak (EAJ/PNV-EA): “Etxe babestuen zerbitzua eta etxez etxeko laguntza-zerbitzua eguneratzeko garaian irizpide berdina jarraitu da, zeren eta bi zerbitzuetan gastu garrantzitsua pertsonalarena da. Tasa % 5 igo da, baina igoera hori ez da pertsona guztientzat. Egin dena da, baliabide gehienak dituztenei % 5 igo, maila ertainekoei KPA eta gutxienei ezer ez. Tasak arrazoi hauengatik igo dira: zerbitzuen gastua igo egin da eta Foru Aldundiak esaten duenaren arabera, etorkizunean baliabide altuak dituzten ekarpenek guk onartuta ditugunak baino handiagoak izan beharko dute”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, iritzi hauek azaldu dira:

Iñaki Saldaña jaunak (EB): “Respecto a que el quemás tiene más paga, me parece lógico, pero estamos hablando de un bien social y en este sentido pensamos que los fondos del Ayuntamiento deberían destinarse más al gasto social que al lúdico. En cuanto al tema de las basuras, quisiera saber en que se invierte el dinero que se logra con la metanización de los residuos.”

Pello Garaialde jaunak (EAJ/PNV-EA): “De momento no hay beneficios provenientes de la metanización. El EVE juntamente con la Mancomunidad Sasieta y en la proporción del 50% instaló una planta de metanización en el vertedero de Sasieta. Los objetivos que se perseguían eran dos: una de carácter económico, es decir, de rentabilidad y la otra de carácter medio-ambiental, por la cual dejamos de expulsar metano, que tiene un ciclo aproximado de vida de diecisiete años. Dentro de la inversión realizada de 120 millones de pesetas, entre el punto verde que nos da 4 pesetas por cada Kw.

que producimos por no echar el metano, y lo que estamos vendiendo a tarifa regulada a Iberdrola, estamos facturando alrededor de 32 millones de pesetas al año de facturación. Si a eso le deducimos los gastos de mantenimiento, últimamente si estamos logrando un beneficio que va a amortización. Cuando la planta lleve funcionando un plazo de siete años y medio tendrá beneficios, que se dividirán al 50% entre el EVE y Sasieta y entonces si repercutirá en la ciudadanía.”

Iñaki Saldaña jaunak (EB): “Otra cuestión más. Cualquier trabajador estaría encantado si a día 15 de enero le revisaran su sueldo y le aplicaran el PC. Aquí por norma se aplica a todas las familias, le suban o no su retribución. El Ayuntamiento tiene que gestionar unos recursos, pero siempre repercute sobre la clase obrera. Por todo ello voy a votar en contra.”

Julio Herreros jaunak (PP): “Como en años anteriores el PP, propone que la subida sea cero, es decir la congelación. Como último remedio, la mínima subida, la del IPC, porque a los ciudadanos hay que darles un respiro en cuanto a impuesto y tasas sin subidas anuales. En cuanto al IBI y las familias numerosas, la bonificación es del 50%. Nosotros no estamos conformes porque nuestra apuesta va por los descuentos por tramos, que son más beneficiosos, por ejemplo, familias con tres hijos, descuentos del 50%, de cuatro, del 70% y cinco máximo del 90%. Para nosotros el valor catastral de 160.000 € está bajo. Pedimos que se sitúe en 250.000 €. Para personas mayores de 65 años cuya unidad familiar es inferior a 18.000 €, pedimos una bonificación del IBI del 50%. En la comisión correspondiente no se apoyaron estas propuestas, con lo cual presentamos una enmienda a la totalidad.”

M^a Pilar Vispo andreak (PSE-EE/PSOE): “En este punto os vamos a abstener porque hay algunos aspectos con los que estamos de acuerdo, pero en otros no. Como es costumbre y habitual nos ha llegado la documentación tarde, con lo cual no hemos podido analizarlo adecuadamente.”

Ondoren, atzo hartu zutela adierazi du.

Beste guztiek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Alkate jaunak (EAJ/PNV-EA): “Hemos tenido dos o tres comisiones sobre este tema y a todos se os convocó. Si alguno no viene a la comisión y pide que se le envíe la documentación se le manda.

Respecto a la propuesta del PP, hay temas que pueden ser dicutibles, pero también hay que tener en cuenta el número de familias numerosas que

tenemos en Beasain. Respecto al valor catastral de 250.000 €, casi con toda seguridad te puedo decir que en Beasain no habrá ninguna vivienda. Las últimas viviendas ejecutadas están por debajo de 160.000 €. Todas las familias numerosas que no tengan cuatro o cinco viviendas, sino una vivienda digna, pueden acogerse a la bonificación.

En relación al resto de los temas que se han planteado no entramos a debatirlos porque ya se han tratado en comisión.”

Gaia behar adina eztabaidatu ondoren, bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 10 (EAJ/PNV-EA)
Aurkako botoak: 3 (PP, EB)
Abstentzioak: 1 (PSE-EE/PSOE)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin onartu da proposamena.

7.- EGUNEKO ZENTROAREN KUDEAKETA. Baldintza-agiriak eta Eguneko Zentroaren kudeaketa kontratatzeke deialdia onartzeko proposamena.

Alkateak gizarte-ongizate batzordeburuari hitza eman eta hark proposamenaren berri eman du: “Orain eguneko zentroa kudeatzen ari den enpresak lau urte bete ditu eta kontratua lau urtetarako egin zenez, berritu beharrean gaude. Berritze honetan bi aldaketa nagusi proposatzen dira:

- Iraupen-denbora. Hamar urterako kudeaketa izango da, baina kontratua urte baterako egingo eta urtero berrituko da.
- Kudeaketa mota. Orain arte pertsonetikiko kudeaketa kontratatzen genuen alde batetik eta aparte, garraioa, janaria etab. Orain osotasunezko kudeaketa egitea planteatzen da. Eredu hau Foru Aldundiak beste eguneko zentroan martxan dauka eta askoz garbiagoa dela iruditu zaigu.”

Hitz egiteko txanda eman ondoren, bildutakoek iritzi hauek azaldu dituzte:

Iñaki Saldaña jaunak (EB): “Aunque no tiene que ver con lo que se propone, me gustaría saber cómo está el servicio de ayuda a domicilio, porque ya sé que GSR, va a renunciar al contrato.”

Imanol Aranburu jaunak (EAJ/PNV-EA): "El año pasado adjudicamos el servicio a GSR para un año, con comienzo el 1 de diciembre, pero con una antelación de dos meses, se podía denunciar el contrato, y eso es lo que ha hecho GSR. Ello nos obliga a volver a licitar. El 10 de octubre celebraremos comisión de bienestar social y en ella se analizarán los nuevos pliegos que se elaboren."

Iñaki Saldaña jaunak (EB): "Nosotros lo que venimos pidiendo es que se posibilite a las trabajadoras que se constituyan en cooperativa para poder participar en la licitación."

Eguneko Zentroari buruzko proposamenari buruz Iñaki Saldañak dio abstenitu egin behar duela.

Beste guztiek proposamenarekiko adostasuna azaldu dute.

Bozketa egin da eta ondorengo emaitza lortu da:

Aldeko botoak: 13 (EAJ/PNV-EA, PSE-EE/PSOE, PP)

Aurkako botoak: 0

Abstentzioak: 1 (EB)

Horren ondorioz, gehiengo absolutuarekin, eguneko zentroaren kudeaketa kontratatzeko baldintza-agiriak onartu eta deialdi publikoa egitea erabaki da.

8.- ALKATETZAREN EBAZPENAK. 2005eko uztailaren 26tik 2005eko irailaren 26ra emandako ebazpenak.

Ezagutzera ematen dira, 2005eko uztailaren 26tik 2005eko irailaren 26ra emandako ebazpenak.

9.- ESKAERA ETA GALDERAK

Eskaera eta galderen artean hauek azaldu dira:

SARRERA-ERREGISTROAK

Iñaki Saldaña jaunak Udaletxean sartzen diren dokumentu guztien berri izatea eskatu du.

Informazio hori emateko ez dagoela inolako eragozpenik erantzun zaio.

ETXE BABESTUAK

Herritar batek eskatuta, etxe babestuei buruzko tasarekiko argibidea eman da. Berriro ere, gogorarazi egin da diru-sarrera handiak dituztenentzat igo egin dela tasa, % 5, baina errealitatean seguraski, etxe babestuetan dauden gehienek, diru-sarrera txikiak izango dituztela adierazi da eta horientzat tasa ez dela igo.

Eta besterik esateko ezean, batzarraldia arratsaldeko zortziak laurden gutxiagotan amaitu da, eta nik, idazkari naizen honek, akta hau idatzi eta sinatu dut.